		D05	Ekipamenduak, oro har eta, bereziki, ikastetxeak hiri inguruko kokaguneetarantz deslokalizatzeko prozesuak ekiditea.	L05	Indarreko LPPko eta Areatzan proposatutako parke metropolitarrak mugaketak berrikustea.
		D06	Zuzkidura-etxebizitzaren eskaintza osatzea egiteke dagoen kasuetan.	L06	Parke metropolitarran eremuak kalifikatzeko euren harrera-ahalmenerako egokien diren erabilerak esleitu ahal izateko arauak ezartzea, jolas-erabilera eta natura-balioa bateragarri eginez eta lurzoruen jabetza-araubidea aintzat hartuz.
		D07	Ekipamendu eta zerbitzuen irisgarritasuna eta hurbiltasuna bultzatzea eta garraio modu ez-motordunak, ibiltzea, bizikleta ibiltzea eta garraio kolektiboa erraztea, eguneroko mugikortasunerako funtsezko modu gisa, batez ere hurbileko ekipamenduetarako joan-etorrietan eta aisia, jolas eta olgetarako joan-etorrietan.	L07	Paisaiarako irisgarritasuna erraztea. Hau proposatzen da horretarako: - Ibai-parkeak finkatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Bilboko itsasadarra. • Behe Nerbioi, Basauritik Laudioraino. • Galindo, Cadagua, Asua eta Nerbioi ibaiak. - Bilboko eraztun berdea zabaltzea, ibilbideak eta begiratokiak lotuz eta enklabe estrategikoen balioa azpimarratuz, hala nola Serantes, Cabras, Artxanda-Ganguren... mendiena. - Ibilbide hauek sortu eta/edo finkatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Burdin Hesia. • Amildegien ibilbidea Uribe Kostan. • Meatzaldeko paisaiaren ibilbidea. • Done Jakue bidea.
		D08	Udalez gaindiko ekipamenduek sortutako mugikortasunak ingurunean duen eragina minimizatzea.	L08	Irizpideak ezartzea lurzoru urbanizaezinean kokatutako ekipamenduak handitzea ahalbidetzeko.
				L09	Irizpideak ezartzea lurzoru urbanizaezineko erabilerek interes publiko eta soziala duten baloratzeko.
				L10	Ingurune andeatuak, hala nola lurzoru kutsatuak, berroneratzea ahalbidetzen duten esku-hartzeak lehenestea.
				L11	Lurralde sare bat sortzea, mugikortasun ez-motordunaren eta garraio kolektiboaren bidezko irisgarritasuna erraztuko duena.
EQ02 Ekipamenduaren eskuragarritasuna erraztea mugikortasun ez-lineala eta eguneroko erabilera kontuan hartuz					
C01	Ekipamenduen eskaintza gizarte, demografia eta kultura beharrianetara egokitzea.	D01	Adineko pertsonen beharrian eta eskaerei buruzko gizarte ikerketak egitea.	L01	Udalez gaindiko bidegorri batetik hurbileko ekipamenduetara bizikletaz iritsi ahal izatea erraztea.
C02	Ekipamenduetarako irisgarritasuna hobetzea, oinezkoen eta bizikleten eskalan pentsatutako hiri-sistema trinko bat bultzatuz.	D02	Hurbileko ekipamenduak auzoarekiko, bizi kalitatearekiko eta osasunarekiko erlazio sare bat garatzeko nodotzat hartzea, zentroen arteko oinezko eta bizikletentzako loturak bultzatuz.		
		D03	Ekipamenduak balioaniztasun eta autogestio logikekin eguneratzea sustatzea.		
		D04	Udalerrri bakoitza egoera baterantz bilakatzea lortzea, zeinean lehen mailako ekipamenduko beharrianak udalerrian konponduko baitira.		
		D05	Ikastetxeen, kirol eta kultura ekipamenduen eta bizigune nagusien konektibitatea bultzatzea.		

ZEHARKAKO GAIAK

INKLUSIOA ETA GENERO IKUSPEGIA

IRIZPIDEAK	GIDALERROAK	JARDUNBIDEAK
GN01 Lan egitea egoera bat lortzeko, zeinean sexu biek garraio-bideak eskuratzeko aukera berdinak izango baitituzte Egoera bat zeinean emakumeek eta gizonek berdin eskuratuko baitituzte aisia eta kultura baliabide mota orotako ekipamenduak		
C01 Emakumeen benetako eta askotariko beharrezanezi kasu egitea.	D01 Hiri-plangintza eta etxebizitzaren, espazio publikoen eta garraioaren diseinua aldatzea kontziliazio erantzunkidea errazteko. (Ikus GN01-C01)	L01 Herritarrek eguneroko bizitzako jarduerak egiteko ibilbideak egiteko erabiltzen duten denbora murriztea, lurraldea planifikatuz, erabilerak eta, bereziki, eguneroko bizitzarako behar direnak, ibilgailuzko joan-etorriak egin beharra murriztu edo denborak laburtzen dituzten distantzietara kokatuz. (Ikus GN01-C01 eta GN01-D01)
C02 Emakumeek eta gizonek aisia eta kulturako ekipamenduak eta eta mota orotako baliabideak berdintasunez eskuratzeko erraztea.	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen mugikortasun-ereduak, bidaiatzeko modua eta joan-etorrietarako ordutegi murrizketak, zein haien eskuragarritasun eta segurtasuneko beharrezan kontuan hartzea. - Beste pertsonak zaintzeari eta etxea mantentzeari lotutako bidaiak denbora ahalik eta laburrean egin ahal izatea, behar diren ordutegietan eta kostu onargarrian egin ahal izatea ahalbidetzea (zaintzaren mugikortasuna). - Hiri-plangintzako eta etxebizitzaren, espazio publikoak, eta garraio-irizpideak identifikatu eta aplikatzea, kontziliazio erantzunkidea eta pertsonen autonomia errazteko. - Gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntutik jasangarriagoa den mugikortasuna sustatzea. 	L02 Lurraldearen izaera polizentrikoa sustatzea, hiri ertainek, bildu eta zerbitzuak ematen dituzten gune gisa, duten protagonismoa berreskuratuz eta euren gain hartzen dituzten gune txikiagoetan bizi direnen zaintza lana egitea erraztuz. (Ikus GN01-C01 eta GN01-D01)
GN02 Pobrezia orokorra eta pobrezia edo/eta bazterketa arriskuan edo egoeran dauden emakumeen kopurua murriztea	D02 Emakumeek gizarte baliabideak (ekipamenduak eta garraio publikoa, kirol-, aisia eta kultura-baliabideak...) eskuratu ahal izatea bultzatzea, batez ere erabilera desberdintasun handia duten horietan, eta askotariko diskriminazio egoerei arreta handia jarritz. (Ikus GN01-C02)	L03 Landa-eremuen eta eskualde mailako zaintza-ekipamenduak dauden eremuen arteko konektibitatea bultzatzea. (Ikus GN01-C01 eta GN01-D01)
GN01 Arreta berezia jartzea emakumeen pobrezia eta horrekin han egoera horretan dauden emakumeen beharrezanezi.	D01 Emakumeek enpleguak eskuratzeko eta lanbidean promozionatzeko dauzkaten aukerak eta baldintzak hobetzea, kolektibo eta egoera guztiak kontuan hartuz, enplegua, autoenplegua eta enpresa-proiektu lehiakorrek sustatzen dituzten emakumeen kopurua handituz. (Ikus GN02-C01)	
GN03 Gizarte bat lortzea, zeinean emakumeek eta gizonek, familiek eta etxeek aldaketa sakonak egin, erantzukizunak, denbora eta eginkizunak banatu eta partekatuko baitituzte, eta zeinean enpresak, erakundeak eta erakunde publikoak aldaketarekin engaiatuko baitira		
C01 Erantzukizunaren, denboraren eta zereginen banaketan aldeak ekiditea.	D01 Enpresak, erakundeak eta erakunde publikoak aldaketarekin engaiatzea. (Ikus GN03-C01)	
C02 Gizarte zereginen banaketa zuzenari buruz mentalizatzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Generoko soldata-arrakala murriztea. - Euren lantokietan lanbide promozioak lortzen dituzten emakumeen ehunekoa handitzea, batez ere sektorerik feminizatuenetan. - Emakume taldeen jarduerak eta okupazio-tasa handitzea, kalitatezko enpleguetan parte hartuz. 	
C03 Errealitate horretan dauden gizarte balioak aldatzea.	D02 Gizarte estaldurarekin bateragarri egiteko neurriak eta politikak eta egoera okerrenetan (lehen sektorea, etxeko lanak...) dauden emakumeen lan-baldintzak bultzatzea (Ikus GN03-C02)	
	D03 Indarkeria desagerraraztea, gizarte taldeek eta, bereziki, emakumeek adineko pertsonen eta haurrek ez-seguru edo "arriskutsu gisa sumatzen dituzten guneak" identifikatuz. (Ikus GN03-C03)	

KLIMA ALDAKETAREN ONDORIOETARA EGOKITZEA ETA HAIK ARINTZEA

IRIZPIDEAK		GIDALERROAK		JARDUNBIDEAK	
CC01	Klima-aldaketaren ondorioak arintzea				
C01	Hiri habitatean klima-aldaketaren aldagaia kontuan hartzea	D01	Energia-kontsumoa eta berotegi-efektuko gasen isuriak aurreztu eta murrizteko irizpideak bultzatzea		
C02	Mugikortasun jasangarria sendotzea.	D02	Jasangarritasun-irizpideekin berroneratzearen alde egitea.		
C03	Garraioan petrolioa kendu eta ordezeko energiak erabiltzea bultzatzea, ingurumen-inkaktu eta ahulezia murriztuz, etorkizunean energia hori urria izango baita. (Ikus EA01)	D03	Erabilerak nahastea erraztea, hiri-egitura trinko eta mistoaren bidez.		
C04	Hiriko eta hiri inguruko azpiegitura berde eta urdinaren sare koherentea diseinatzea (ingurune fisikoa)	D04	Lurzoru kutsatuak leheneratzea bultzatzea.		
C05	Lehen sektorearen resiliencia handitzea eta haren isuriak murriztea, karbonoaren hustubide gisa duen ahalmena handituz.	D05	Lurzoru berriak artifizialtzea eta hartzea mugatzea, klima-aldaketaren aurrean resiliencia handiagoa lortzeko.		
C06	Nekazaritza eremuen kudeaketa aktiboa erraztea, lurraldearen jasangarritasun globalerako funtsezko neurri gisa (Ikus HR01).	D06	Eraikuntzan efizientzia energetikoko irizpideak bultzatzea.		
C07	Mendi arboladunen dibertsitatea eta iraupena bermatzea, basoko lurraldea ematen dituzten ekosistema-zerbitzuak mantentzeko moduan mugatuz eta antolatuz (Ikus HR01).	D07	Ondare eraikiaren energia-autokontsumoko sistemak gehiago erabiltzea sustatzea, "zero isuri" eraikuntzarantz joz.		
C08	Baliabideen kudeaketa jasangarria	D08	Teilatu eta fatxada berdeak eta arbolak bultzatzea.		
		D09	Klima-arriskuen eraginpean egon daitezkeen eremuak eta bereziki kostaldeko eremuak identifikatzea.		
		D10	Arrisku ekologikoen eragindako eremuak identifikatzea.		
		D11	Energia berriztagarrien ekoizpena eta kontsumoa handitzea, eraikinetan eta artifizialdutako lurretan.		
		D12	Udalerrien Energia Berriztagarriko Ekintza Planak (EBEP) idatzi eta ezartzea.		
		D13	Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna bultzatzea		
		D14	Garraio publikoko zerbitzuen erabilera sustatzea.		
		D15	Garraioa elektrifikatzea, intermodalitatea eta berotegi-efektuko gas isuri gutxien duten garraio moduak sustatzea.		
		D16	Azpiegitura berdea, naturan oinarritutako irtenbideak eta ekosistemak berroneratu eta naturalizatzea sustatzea lurraldearen resiliencia eusteko.		
		D17	Nekazaritza eremuen kudeaketa erraztea, nekazaritza jarduerak dibertsifikatuz, kalitatezko elikagaien hornitzaile gisa, eta nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpen integratu, ekologiko eta tokikoa, berotegi-efektuko gas isuri gutxien duena, sustatuz.		
		D18	Basoen kudeaketa hobetzea eta sute arriskua minimizatzea.		
		D19	Arboladun mendien dibertsitatea eta iraupena bermatzea, baso lurraldea mugatuz eta antolatuz, ematen dituzten ekosistema zerbitzuei eusteko moduan, andeatutako eremuak basoberritzea eta baso naturalaren azalera handitzea, karbonoaren hustubide gisa.		
		D20	Nekazaritza eta basogintza hondakinak konpostatzeko plantak ezartzea erraztea.		
		D21	Sortutako hondakinak minimizatzea eta haren bilketa selektiboa bultzatzea.		
		D22	Hondakinen bilketa selektiboa areagotzea, ondoren berrerabili, birziklatu eta balorizatzea erraztuz.		
CC02	Klima-aldaketara egokitzea				
C01	Lurraldearen klima-aldaketaren aurreko resiliencia ziurtatzea.	D01	Lurzorua hartzea mugatzea, erabilerak nahastea eta andeatutako eremuak berroneratu eta berrerabiltzea erraztuz.	L01	Hiriko eta hiri inguruko berdeguneen arteko lotura eta ibai-ekosistemen integrazioa erraztea, hirialdeetan bero-uhartearen ondorioak gutxiagotzeko eta klima-aldaketaren ondorioen aurrean duten resiliencia eusteko.
C02	Klima-aldaketaren aldagaia sartzeko eremu sentiberen kudeaketa: bero-uharteak jasan ditzaketen hiri-eremuak, kostaldeko eremuak, uholdeak jasan ditzaketen aldeak, eta abar.	D02	Bero-uharteak, uholdeak, itsas mailaren igoerak, baldintza geoteknikoetako aldaketak, eta abar izateko arriskua duten eremuak definitzea.		
		D03	Erabilerak eta jarduerak erregulatzea klima arriskuak dauzkaten eremuetan (esaterako, uholdeak jasan ditzaketen eremuak).		
		D04	Klima-aldaketaren aldagaia sartzeko eremuak jasan ditzaketen hiri-eremuen kudeaketa, ibai-ibilguak integratzea eta hiriko eta hiri inguruko eremu berdeen arteko lotura erraztuz.		

IRIZPIDEAK	GIDALERROAK	JARDUNBIDEAK
	<p>D05 Lurzoruaren irazkortasunaren alde egitea, azaleko jariatzea hobeto kudeatzeko eta hala uholde arriskua minimizatzeko</p> <p>D06 Babesak edo beharrezkoak diren beste azpiegitura batzuk planifikatzea.</p> <p>D07 Garapeneko irizpideak hartzea (xehatua, hirigintza, eraikuntza), bai materialen erabilerari, inguratzaleei, eraikinen noranzkoari, zoladuren irazkortasunari eta abarri dagokienez, bai sestra gaineko erabilerei eta abarri dagokienez.</p> <p>D08 Xehetasuneko azterketak eta/edo justifikazio arrazoitua eskatzea baldintza klimatikoek eragindako arriskuko gisa identifikatutako eremuetan.</p> <p>D09 Klima-aldaketaren aldagaia sartzea kostaldeko eremuen kudeaketan.</p> <p>D10 Nekazaritza eta basogintzako jardunbideak klima baldintza berrietara egokitzea.</p> <p>D11 Hiri-eremuetan teilatu eta fatxada berdeak eta arbolak bultzatzea.</p> <p>D12 Klima-aldaketara egokitzeo neurriak ezartzea osasunean eta ingurumenean balizko kalteak murrizteko.</p> <p>D13 Azpiegitura berdea, naturan oinarritutako irtenbideak eta lur eta ibaiko ekosistemak berroneratu eta naturalizatzea erraztea, lurraldearen resiliendiari eusteko.</p>	

HAURREI, HIRIARI ETA LURRALDEARI BURUZKO POLITIKAK ETA EKIMENAK BILBO METROPOLITARREAN

IRIZPIDEAK		GIDALERROAK		JARDUNBIDEAK	
IF01	Haurren hirirako eskubidearen, autonomiaren eta norberaren garapenaren balioa azpimarratzea, ingurune adeitsu eta begirunetsua bermatuz				
C01	Mendetasuna duten haurren beharriari kasu egitea, hiri-plangintza eta ekipamendu eta zerbitzuenean.	D01	Hiri-plangintza eta udal kudeaketan, hurrek herritartasunerako eta euren garapen pertsonalerako duten eskubidearen balioa azpimarratzea, irisgarritasun unibertsaleko beharriak kontuan hartuz, topatzea, harremanak izatea, gizarte elkarrekintza, jolasa eta aisialdi eta naturara gehiago urbiltzea erraztuz. (Ikus IF01-C01)		
C02	Haurrak eta gazteak lurralde metropolitarrak eta hiria egituratzeko proiektu kolektiboan sartzea.	D02	Genero-ekitate haurtzarotik sustatzea garapen jasangarri eta inklusibo lortzeko. (Ikus IF01-C01)		
C03	Hiri-inguruneak norbanako guztien garapenean eta haien nahi pertsonal eta sozialen integrazioan duen eragina baloratzea, belaunaldien eta kultura desberdineko pertsonen bereizketaren aurka jardunez eta belaunaldi arteko ikaskuntza kulturaztatuz erraztuz.	D03	Hurrek erabakietan parte hartzea bultzatzea, batez ere hiri-politika eta -proiektuetan. (Ikus IF01-C02)		
C04	Jolasa funtsezko eragile gisa pertsonak hazteko eta ikasteko prozesuan.	D04	Hazkuntza eta ikaskuntza aktiboa erraztea, espazio publikoan eta hiriko espazioetan jolastuz. (Ikus IF01-C03)		
C05	Ikastetxe publikoetako patioek hiri-berrikuntza prozesuetan eremu balioaniztun gisa duten eginkizuna baloratzea.	D05	Ikastetxe publikoetako patioek hiri-berrikuntza prozesuetan eremu balioaniztun gisa duten eginkizunaren balioa azpimarratzea, espazio publikoan berariazko araudik diseinu eta eraldaketan bidez txertatuta, auzoak berroneratzeko duten eginkizunaren balioa azpimarratuz. (Ikus IF01-C05)		
IF02	Osasunerako eskubidea bermatzen duen eremu funtzional bat ziurtatzea, bai laguntzari (ekipamenduak) bai ingurumen osasungarriari dagokienez				
C01	Herritarren adinari eta generoari egokituak plangintza bat sustatzea.	D01	Lurralde eta hirigintzaren arloko erabakietan tokiko osasun-sistemako profesionalak, toki mailan identifikatutako osasunerako aktiboak eta adin-talde guztiak sartzea. (Ikus IF02-C01)		
C02	Arrisku naturalak prebenitu, murriztu eta kudeatzeko sistemak hartu eta ezartzeko ekosistemen resiliencia garatu, babestu, leheneratu eta sustatzen duen plangintza, ingurumen-inpaktuak minimizatuz.	D02	Ingurumen-arriskuaren mapak hiri-plangintzaren diagnostiko-fasean sartzea bultzatzea. (Ikus IF02-C02)		
		D03	Hiri eskalan klima aldaketa egokitu eta prebenitzeko planak garatzea, adin-talde bakoitzari eta generoari egokituak zehaztapenekin. (Ikus IF02-C02)		
IF03	Mugikortasunaren hierarkia-piramidea alderantzizkatzea, modu ez-motordunak eta garraio kolektiboaren erabilera ardatz egituratzaile nagusi gisa jarritz				
C01	Bide segurtasun faltari aurre egitea, haurrentzat bide segurtasunerako eskubidea eta, hortik eratorrita, hirirako eta norberaren autonomiarako eskubidea era erabakigarrian baldintzatzen baititu.	D01	Ibiltzea, bizikleta eta garraio kolektiboaren erabilera lehenesten dituen mugikortasun-sistema lehenestea. (Ikus IF03-C01)		
IF04	Hiri sistema irisgarria lortzea, oinezkoen eta txirrindularien eskalan, garraio kolektiboaren erabilerarekin uztartuta, isuri kutsatzaileak eta zarata murriztuz eta haurtzaroan bizi ohitura osasungarriak sustatuz, modu ez-motordunen eskutik				
C01	Dentsitate baxu edo oso baxuko lurralde garapenerako ereduak (<i>sprawl</i>) ekiditea, haurren autonomia garatzeko prozesuak eta mugitzeko modu ez-motordunak oztopatu eta sakabanaketa handiagoa sortzen baitute.	D01	Udal ekintzatik hiri eta auzo sistema bat proposatzea, hiriko eta hiri arteko mailan haurren eta adineko pertsonen autonomia pertsonala errazten dutenak. (Ikus IF04-C01)	L01	Ikastetxeak hirigunetik hiri inguruko kokaguneetarantz edo lurzoru urbanizazinean garatutakoetarantz deslokalizatzeko prozesuak galaraztea. (Ikus IF04-C01 eta IF04-D01)
C02	Zero ikuspegia deritzona hartzea ibilbide seguruak sortzeko, trafiko lasaia duten kaleak, 30 eremuak eta antzekoak ezarriz, ikastetxeak kirol eta kultura ekipamenduekin eta bizigune nagusiekin lotzeko.	D02	Eskola-bideetako programak garatzea (oinetz edo bizikletaz), gainera, harremanak eta sozializazioa erraztu eta hurrek euren auzo eta hiria hobeto ezagutzen laguntzen du. (Ikus IF04-C02)	L02	Udalez gairik edo metropoli mailako bidegorri batek zeharkatzen dituen ikastetxeetara bizikletaz iritsi ahal izatea erraztea. (Ikus IF04-C02 eta IF04-D03)
		D03	Ikastetxeak eta hezkuntza ekipamenduak oinezkoen ibilbideen sare baten eta bizikletaren erabileraren bidez lotzea. (Ikus IF04-C03)		

EUSKARA

IRIZPIDEAK		GIDALERROAK		JARDUNBIDEAK	
EU01	Eremu funtzionaleko errealitate soziolinguistikoa lurralde-antolamenduan sartzea, hizkuntza ikuspegiari eginkizun integratzailea emanez				
C01	Hizkuntza-paisaia kontzeptua sartzea lurralde-plangintzan.	D01	Euskarazko toponimoak edo hitzak, euren aldaera normalizatuan, erabiltzea sustatzea, besteak beste, auzoen, industrialdeen, osasun- eta kultura-zentroyen eta ikastetxeen izen berrietan. (Ikus EU01-C01)	L01	Lurralde plangintzatik babestu beharreko ondasun ukiezinei lotutako eremuen, ibilbideen eta euskarrien kontserbazioa bultzatzea. (Ikus EA01-C01 eta EA01-D01).
C02	Oreka eredu orekatu eta endogenoa sustatzea, euskaldunei aldaketa soziolinguistikoko kaltegarria ekarriko ez diena.	D02	Presentziazko sareak lotzeko eta indartzeko eremuak bultzatzea eta lurralde eksklusibotasun eta konpartimentazio eremuak ekiditea, topatzea eta gizarte elkarrekintza errazten duen hiri-diseinu baten bidez. (Ikus EU01-C02)	L02	Azpiegitura eta ekipamendu handiek lurraldearen zatikatzean duten eragina baloratzea, ELE (Eragin Linguistikoen Ebaluazioa) motako ebaluazio-tresnak sartuz. (Ikus EA01-C02 eta EA01-D02).
C03	Euskara lurralde eredu orekatuaren barruan lotzea, ondare ukiezinaren elementu eta garapen jasangarriaren oinarri gisa.	D03	Arnasguneak deritzen udalerrriak edo izateko ahalmena dutenak zaintzea eta indartzea. (Ikus EU01-C02)	L03	Arnasguneak deritzenak eremu funtzionalean (Zeberio) eta euskararen %50-%70 arteko ezaguera dutenak (Lemoiz, Lezama eta Larrabetzu) identifikatzea arnasgune bihurtzeko duten ahalmenagatik. (Ikus EA01-C02, eta EA01-D03).
				L04	Udalerrri horien eragin-eremua identifikatu eta lurraldeko erlazioa erraztea. (Ikus EA01-C02 eta EA01-D03).
				L05	Arnasguneak eta balizko arnasguneak sarean lotzea, hiri- eta hizkuntza-politiken bidez. (Ikus EA01-C02 eta EA01-D03).
				L06	Euskara eremu funtzionalaren ondare ukiezinaren barruan sartzea. (Ikus EU01-C03)

OSASUNA

IRIZPIDEAK		GIDALERROAK		JARDUNBIDEAK	
SD01	Lurralde eredu bat bultzatzea, eraikitako espazioaren eta espazio librearen arteko oreka eta espazio publiko publiko integratu, askotariko, seguru eta unibertsalki irisgarrien sare bat sustatuko duena, mugikortasun aktiboa eta jokabide osasungarriak erraztuko dituena, komunikazioa eta gizarte-kohesioa sustatzeaz gain				
C01	Natura, historia edo kultura garrantzia duten edo oroimen kolektiboan nortasuna duten tokiak kontserbatu eta/edo hobetzea.	D01	Klima-aldaketa egokitzeko eta arintzeko neurriak ezartzea osasunean eta ingurumenean balizko kalteak murrizteko. (Ikus SD01-C01)	L01	Jatorri natural eta antropogenikoko arriskuak identifikatzea eta haiek minimizatzeko planak ezartzea, heriotza-tasa eta lotutako gaixotasunak murriztuz. (Ikus SD01-C01 eta SD01-D01)
C02	Tokiko elikagaien ekoizpenaren eta kontsumoaren alde egitea.	D02	Hiri-baratzeak eta lorategi jangarriak sortzea erraztea (Ikus HR01) (Ikus SD01-C02)	L02	Espazio publikoak hobetzeko parte hartu eta hitz egiteko kultura bultzatzen duten ekintzak egitea, tokikoa izateko sentimendua sendotuz eta gizarte batasuna erraztuz. (Ikus SD01-C01 eta SD01-D01)
C03	Nekazaritza-lurra urbanizatzea ekiditea, tokiko kontsumorako elikagaiak ekoizteko aukera handituz.	D03	Plangintzan bizilekueetatik hurbil berdeguneak eta atsedenguneak egotea aurreikustea. (Ikus SD01-C04)	L03	Nekazaritzarako lurra identifikatzea. (Ikus HR01) (Ikus SD01-C03)
C04	Hirialde trinkoak eta erabilera mistokoak diseinatzea sustatzea, gizarte harremanetarako, jarduera fisikorako eta jarduera ekonomikoetarako espazio publikoak egotea errazten dutenak, erabiltzaileen eta herritar talde guztien dibertsitatea kontuan hartuz, osasuneko desberdintasunak murriztea ahalbidetuz.	D04	Aisialdi aktiborako espazio publiko seguru, egoki eta erakargarrietarako irisgarritasuna sustatzea, zailtzen duten oztopoak kenduz. (Ikus SD01-C04)	L04	Egungo eta etorkizuneko komunitatearen beharrianak identifikatzea eta herritar talde guztiei zerbitzuen bidezko eskuragarritasuna bermatzea. (Ikus SD01-C04 eta SD01-D03)
C05	Ekipamendu sareen bidezko eskuragarritasuna lortzea, haiek era orekatuan banatuz.	D05	Trafikoa lasaitzeko neurriak bultzatzea bizitegietan eta hiriguneetan, pertsonen segurtasuna eta konfiantza handituz aktiboki mugitzeko. (Ikus SD01-C04)	L05	Berdeguneak eta/edo naturguneak mugikortasun aktiborako sare seguruekin eta/edo garraio publikoko sareekin lotzea. (Ikus SD01-C04 eta SD01-D04)
C06	Tokiko enplegurako aukerak sortzea erraztea, ibilbideetan erabilitako denbora murriztuz eta erreproduktzio-jardueretarako dagoen denbora hobetuz.	D06	Ekipamendu sareak hiri eta lurralde bilbean fisikoki txertatzea sustatzea. (Ikus SD01-C05)	L06	Oinezko eta bizikletentzako ibilbide sareak hobetzea mugikortasun aktiboa eta jarduera fisikoa erraztuz. (Ikus SD01-C04 eta SD-D05)
		D07	Enpleguaren hurbiltasuna eta aniztasuna sustatzea, gizarte-bazterketarako arriskua eta osasunean dauden gizarte desberdintasunak murriztuz. (Ikus SD01-C06)		
		D08	Tokiko enpleguari lotutako prestakuntzaren eskuragarritasuna erraztea, gizarte-bazterketarako arriskurik handienean dauden pertsonen aukerak handituz. (Ikus SD01-C07)		
		D09	Hiriko merkataritza lehenestea periferiako merkataritzaren aurrean. (Ikus SD01-C07)		
SD02	Agente kutsatzaileen pilaketa murriztea, garraio modu ez-motordunak eta garraio publikoaren erabilera sustatuz				
C01	PM, NOx, SOx, COV, O3 eta CO isuri kutsatzaileak eta, oro har, egungo ekoizpen eta mugikortasun ereduak sortutakoak murriztea.	D01	Hiriko nahiz hiri inguruko garraio publikoko zerbitzuak bultzatzea.	L01	Irisgarritasuna hobetzea, funtsezko ondasun eta zerbitzuetarako garraio publikoaren bidez, lana, osasun-zerbitzuak eta elikagaiak barne. (C01, D01)
				L02	Garraio publikoaren eta mugikortasun aktiborako bideak erabiltzea erraztea, lantokietara iristeko. (C01, D01)

IRISGARRITASUN UNIBERTSALA

IRIZPIDEAK	GIDALERROAK	JARDUNBIDEAK
AU01 Lurraldea pentsatu, egituratu eta kudeatzea zerbitzu eta espazio publikoa guztietarako irisgarritasun unibertsala bermatuz, pertsona guztiek eskubideak eta betebeharrak baldintza berdinetan erabil ditzaten		
C01 DALCO irizpideak kontuan hartzea: joan-etorri autonomoak, atzipena, kokapena eta komunikazioa.	D01 Lurraldearen plangintzan, antolamenduan eta kudeaketan, nahiz udal produktu eta zerbitzuak ematean, irisgarritasun unibertsalaren ikuspegia sartzea.	
C02 Irisgarritasun-kateari kasu egitea: autonomiaz, erraztasunez eta etenik gabe hurbildu, iritsi, erabili eta irten.	D02 Pertsonen inguruan lan egitea, pertsonen euren bizitzan gizarte, ekonomia, politika eta kultura parte-hartzea garatzen duten ingurumen sozial, natural eta artifizial gisa ulertuta.	
C03 Oinarrizko ekipamenduak eta baliabideak herritar guztien eskura erabiltzeko eta eskuratzeko baldintza berdinetan daudela bermatzea.	D03 Elkarri lotuta dauden politiken arteko koordinatzeko zenbait modu bideratzea, irisgarritasun unibertsala zeharkako arloa baita (plangintzako politikak, mugikortasuneko politikak eta programak, etab.).	
C04 Irisgarritasuna uneoro kontuan hartu behar den baldintza edo ezaugarri gisa pentsatzea, epe ertain eta luzerako ekintzako ikuspegiarekin.		
C05 Pertsonen berdintasuna eta banako garapena sustatzea.	D04 Oinarrizko ekipamenduak eta baliabideak herritar guztien eskura erabiltzeko eta eskuratzeko baldintza berdinetan daudela bermatzea, pertsona guztiek euren eskubideak eta betebeharrak erabiltzea bermatzeko moduan.	
C06 Lurraldean dauden oztopo mota guztiak identifikatu eta aztertzea: eraikitako inguruneari, garraio- eta mugikortasun-sistemari eta ingurunearekiko elkarreraginari lotutakoak, teknologien erabilera, komunikazioa eta informazioa, eta kultura eta gizartekoak.	D05 Edozein pertsonak, zein ere diren bere adina, sexua, kultura jatorria edo gaitasuna, eguneroko jardueretan parte hartzea ahalbidetzea.	
	D06 Herritar guztiek bizitza politiko, ekonomiko, erlijioso, kultural eta sozialean parte hartzea bultzatzea eta haren osotasuna zailtzen duten oztopoak ezabatzea.	
	D07 Kontzientziazio, prestakuntza eta parte-hartzerako estrategiak abiaraztea eta gizarte-engaiamendua sustatzea; herritarrak irisgarritasuneko politiken onuradun sentitu eta ingurune irisgarritasuna lortzen parte har dezaten.	
	D08 Pertsonen ingurunea berrikusi, ebaluatu eta hobetzeko ziklo iraunkorra sartzea.	

BATERAGARRITASUNA

IRIZPIDEAK		GIDALERROAK		JARDUNBIDEAK	
CP01	Lurralde-estrategiaren koherentzia lurralde osoan indartzea, bai udal mailan, bai Bilbo Metropolitarraren mailan	D01	Lurralde Plan Partzialean proposatutako udalez gaindiko ekintzak kudeatu eta garatzea erraztea, era integratuan eta dagokien errealitate funtzional eta morfologikoarekin bat etorritik. (Ikus CP01-C01)	L01	Ereku funtzional osoari eta udalerriri mugakideei eragiten dieten arazoak konpontzeko nahiz aukerak gauzatzeko lurralde eskala egokia identifikatzea. (Ikus SD01-C01 eta SD01-D01)
C01	Udalaren jarduerak elkarrekin lehiatzea edo esfortzuak bikoiztea ekiditea.	D02	Iritzi publikoa eta herritarrak orokorrean lurralde eredu integral baten garrantziaz sentsibilizatzea, baita eremu mugakideek hori lotzeko tresna gisa duten garrantziaz ere. (Ikus CP01-C03)	L02	Plangintza integratua behar duten udalerriri taldeak eta udalerriri mugakideen edo elkarri lotutakoaren plangintza koordinatuta idatzi eta garatzen direla bermatzeko mekanismoak ezartzea eskatzen duten egoerak identifikatzea, udalerriri mugak gaintzeko. (Ikus SD01-C01 eta SD01-D01) <ul style="list-style-type: none"> - Bernago-Getxo muga - Abanto-Zierbena eta Muskizen arteko muga - Arrigorriaga-Ugao muga - Bilbo-Sondika muga, Artxandako Parke Metropolitarrari dagokion eremuan. - Kostako parke lineala, Getxo, Sopela eta Barrika udalerriri eragiten diena. - Itsasadarraren ingurunea
C02	Erantzun egokia ematea eremu funtzionalaren mugakide diren udalerrien udalez gaindiko erronkei.			L03	Udalez gaindiko eremu estrategikoak definitzea. Haietan, bateragarri egiteko plan bat idatziko da bizitegi- edo industria-lurrei buruzko politikak garatzeko, edo Antolaketa Integralerako Plan Berezi bat idatziko da, ekipamenduak, azpiegiturak edo lurzoru urbanizazina koordinatu behar diren kasuetan. (Ikus CP01-C01 eta CP01-D01)
C03	Ereku mugakide horien aurrean herritarrak pertzepzio positiboa izatea sustatzea, aukerako eremu gisa.			L04	Eragindako udalerriri bakoitzean bateragarri egin behar diren elementuak definitzea, erreferentzia-esparruaren ezaugarriak definituz eta plangintzak euren jardun-eremuan bateragarri egiteko aplikatu beharreko edukia eta irizpideak ezarriz. (Ikus CP01-C01 eta CP01-D01)
				L05	Bilboko itsasadarraren ingurunearen antolamendu global eta orekatua eta haren udal-plangintzak bateragarri egitea pentsatzea. (Ikus SD01-C01 eta SD01-D01)
				L06	Beste Lurralde Plan Partzialekiko erlazio eremuak aztertzea. (Ikus CP01-C02)

EREMU FUNTZIONALAREN INTEGRAZIOA

IRIZPIDEAK		GIDALERROAK		JARDUNBIDEAK	
IG01 Eremu funtzionala lurralde-estrategia orekatu, adimentsu, inklusibo, erlazionatu eta parte-hartu batean oinarritzea lortzea					
C01	EAEko hiru hiriburuen arteko oreka, integrazioa eta osagarritasuna lantzea, lurraldeen identitatea bateragarri eginez.	D01	Hiriburuen eginkizuna sustatzea, elementu egituratzaile gisa, baita zentraltasun-eremu berriak agertzeko ahalmena ere.	L01	Lurraldearen antolamenduaren arloan lurraldeak koordinatu edo erlazionatzeko irizpideak aplikatzeko plan edo estrategia bateratuak egitea.
C02	Osagarritasuna eta sinergiak bilatzea, hurbileko tamaina ertaineko beste metropolialde batzuekin lehiatzeko eragile gisa.	D02	Bilboren zentraltasunaren, hiriguneen eta landa-inguruneen arteko oreka bermatzea.	L02	Lurraldearen antolamenduaren arloan lurraldeak koordinatu edo erlazionatzeko irizpideak aplikatzeko plan edo estrategia bateratuak egitea.
C03	Eragile publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta lankidetzak, eremu funtzionalerako definitutako ingurumen, ekonomia eta gizarte helburuekin bat etorriz.	D03	Egungo erronkei, lurralde ikuspegia beste eskumen osagarri batzuetarantz gaintzen dituztenei, aurre egiteko estrategiak, tresnak, kontzeptuak eta moduak garatzea.		
C04	Abiadura handiaren, aireportuaren eta metropoliko garraioaren eta eremu osoaren arteko ahalik eta intermodalitate handiena bilatu behar da.	D04	Lankidetzak esparruak ezartzea, lurralde-antolamenduaren arloan lankidetzak-eremuak identifikatzeko lana errazten duten lankidetzak-esparruak ezartzea.		
C05	Kantauri itsasoko ertzean eta Frantziaren egi-mendebaldeko eskualdean eremu funtzionala erreferente bat dela baliatzea.	D05	Eremu funtzionalaren kanpoarekiko lotura hobetzea, barruan ere lotuago egonik.		
		D06	Eremu funtzional mugakide eta Kantabriako ekialdeko eremuekiko lotura intermodalen garapena sustatzea garraio kolektiboarekin.		
IG02 Beste eremu funtzional eta beste lurraldeetatiko lurralde-irazkortasuna mantendu eta hobetzea					
C01	Osootasunaren definizioan eta garapenean bat egiten duten ikuspegiak bateratzea, zenbait eskala eta identitateatik; auzoa, udalerrria, eremu funtzionala, autonomia-erkidegoa, eta abar.	D01	Ikuspegi oso bat, gizarte, lurralde, ekonomia eta ingurumeneko estrategiak batzen dituenak.		
C02	Lurraldearen garapena, eremuen arteko elkarren mendekotasuna kontuan hartzen duena, haien mugikortasun, egoitza, jarduera ekonomiko eta ingurune fisikoko erlazioak kontuan hartuz.	D02	Hurbileko beste eremu funtzional eta lurralde batzuekin bateragarri egitea eta koordinatzea, administrazio-bereizketetatik harago, lurraldearen garapen eta plangintza egokirako.		
C03	Paris-Madril ardatzaren barruko egoera eta proiektatzen diren abiadura handiko trenbide-komunikazioak baliatu behar dira.	D03	Eremuak Europa barneko garraio eta logistika sareetan, trenbide-autopistetan, Natura 2000 Sare Ekologikoan eta abarretan duen tokia indartzea.		
		D04	Eremuaren kanpoaldearekiko mugimenduak erraztea.		
IG03 Lurraldearen lehiakortasuna eta erakargarritasuna indartzea tokiko ezaugarrietan oinarrituta					
C01	Biztanleen bizi kalitatea hobetzen duen hiri-garapena sustatzea. Horretarako, eremu funtzionalak lanpostuetara eta hurbileko zerbitzuetara azkar iristea ahalbidetu eta gizarte-kohesioa hobetu behar du.	D01	Ekipamendu onak eta garraio sarrerako lotura dauzkaten jarduera ekonomikoko eremuak sustatzea.		
C02	Eremu funtzionala ingurumenaren aldetik jasangarria, gizartearen aldetik bidezkoa eta ekonomikoki efizientea izatea lortzea.	D02	Paisaia eta ondarea zaintzea, bizi kalitatean funtsezko den eragile gisa.		
C03	Gizarte-kohesioa erraztea eta gizarte-segregazioa ekiditea, errenta eta zerbitzuak eskuratzean ahalik eta aukera-berdintasunik handiena bermatzeko.	D03	Ekologia, paisaia eta kultura balioak bultzatzea.		
C04	Hiri konplexua sustatzea, espezializazio funtzionalaren aurrean.	D04	Eremu funtzionalekoa izateko sentimenduan sakontzea, ezagut daitekeen eta balio propio eta askotarikoak dauzkan lurralde baten funtsezko eragile gisa.		
		D05	Hirigintzako ekintzak integratzea, herritarren bizi baldintzak hobetzeko programekin, beste administrazioak koordinatzea bilatuz.		
IG04 Lurraldearen erabilera jasangarria bermatzea geroko belaunaldientzat dauden baliabideak arriskuan jarri gabe eta desberdintasunak ezabatzen lagunduz					
C01	Igarobide ekologikoak eta eremu babestuak kontserbatu, lotu eta haien balioak azpimarratzea lurralde eta hirigintza eskala bakoitzetik.	D01	Azpiegitura berdearen kontzeptutik lan egitea ekosistemen zerbitzuak indartzeko.		
C02	Giza kokaguneei eta azpiegiturei eragindako lurralde zatikatzearen ondorioak ekidin eta mugatzea.	D02	Lurraldearen irazkortasuna handitzea eta funtzio anitzeko eremuak identifikatzea.		
		D03	Habitata lotzeko igarobide ekologikoak zaindu eta leheneratzea.		
		D04	Euren ingurumen balioengatik babestutako eremuak euren eskala bakoitzean integratzea (tokikoa, eremu funtzionala, EAE), baita eskualde mugakideekin ere.		